

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

60/2018 Foru Agindua, otsailaren 16koa, behin betiko onesten duena Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamendurako plan orokorraren testu bateratu partziala, funtsezko baldintzak betetzeari dagokionez

AURREKARIAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren otsailaren 28ko 84/2012 Foru Aginduaren bidez, Arratzua-Ubarrundiako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedientea zati batean onartu ez, zati batean bertan behera utzi eta zati batean behin betiko onartu zen.

Bigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 11ko 350/2012 Foru Aginduz, Sustapen Ministerioak egindako errekerimendua onartu zen, eta Arratzua-Ubarrundiako Udalari agindu testu bateratuaren agirian sartzeko errekerimendua betetzeko beharrezko ziren zehaztapenak.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 27ko 379/2012 Foru Aginduz, baiespen partziala eman zitzaion Durako Administrazio Batzarrak egindako errekerimenduari eta ondorioz Durako 3. poligonoko 101. lurzati lurrak eta eraikinak lurzoru urbanizagarrien kalifikazioen planoetan 10 urtetik beherako errepikaldian urpean geratu daitekeen zonan agertuko dira eta Uraren Euskal Agentziak lurra urpean gelditzeko arrisku mailaren arabera erabiltzeko emandako irizpideak arautegiari txertatuko zaizkio.

Laugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren irailaren 23ko 462/2013 Foru Aginduz, betetzat hartu ziren otsailaren 29ko 84/2012 Foru Aginduan finkatutako baldintza ez funtsezkoak, eta agindu zen zati batean onartutako araudia ALHAOn argitaratzeko; izan ere, 2013ko azaroaren 29an argitaratu zen 137. zenbakian.

Bosgarrena. 2017ko abuztuaren 3an, espedientearen testu bateratua sartu zen Aldundi honetako Erregistroan.

OINARRIAK

Lehenengoa. Agiri tekniko honek eta izapidetutako espedienteak egiturazko hirigintza antolamendu berria daukate otsailaren 29ko 84/2012 Foru Aginduan etendako eremuetan eta, ondorioz, funtsezko aldaketak dauzka, jendaurrean behar bezala jarri direnak. Foru agindu hark haxe xedatzen zuen:

Durako behin betiko onarpena bertan behera uztea, DU.09, DU.10 eta DU.11 sektore urbanizagarriei dagokienez, baita sistema orokorrarekiko lotura bideei eta espazio libreen sistema orokorrari dagokienez ere, eta aurkeztutako proposamenak sakonki aldatzea, egitura antolamendu berri bat planteatzeko. Planteamendu berri horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1. 100 urteko birgertatze aldiaren eremu urperagarrien barruan dagoen DU.09 eremuak egoitza zona gisa sailkatuta egoteari utzi beharko dio, eta sektoretik kanpo utzi beharko da edo/ eta egitura antolamendua aldatu egin beharko da, laugarren oinarrian zehaztutakoaren arabera.

2. Duraren hedapenaren egitura antolamendu berrian, bide sare berria sektore urbanizagarrii zerbitzu emateko moduan ezarri beharko da, laugarren eta hamahirugarren oinarrien arabera.

3. Halaber, espedienteak ingurumenaren gaineko baterako ebaluazioaren prozedura igaro beharko du berriro, prozedura hori osatu egin behar baita Durako eremu urperagarrien bi azterketa zehatzekin (hidrologikoa eta ingurumenekoa), ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa ez baita behar bezala egin, laugarren oinarriko 2. puntuko C) idatz-zatiaren arabera. Hori dela eta, espedientea izapidetzerakoan, hasierako txostenaren eskaera egiteko, hasierako onespena lortzeko eta jendaurrean jartzeko fasera jo beharko da, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arroiabeko AR.02 lurzoru urbanizagarriaren eta bere sarreraren behin betiko onarpena bertan behera uztea, aurreikusten den sarrera gehiegizkoa baita, eta zalantzakoa da, AR.02 eremurako soilik baita bideragarria. Hori dela eta, proposamena aldatu egin beharko da, eta bideen arteko lotura behar bezala konpondu beharko da; bestalde, Arroiabeko hirigunerako sarreraren antolamendua aldatu egin beharko da, eta dokumentuaren memorian proposamen berria behar bezala arrazoitu beharko da, laugarren oinarrian zehaztutakoa betez.

Bigarrena. Agiri teknikoa eta espedientea berrikusita, egiaztatu da oro har bete dituela 84/2012 Foru Aginduan xedatutakoa, hain zuzen, aurreko paragrafoan zehaztutakoa.

Bakarrik ikusi da gabezia bat ekonomia eta finantza bideragarritasun azterlanean. Agiri teknikoaren memoriak proposatzen du HUA berria Durako herrigunearen hegoaldean, bermatzeko DU.09 eremu urbanizagarriaren geroko garapeneko isurketak jasotzeko ahalmena. Era berean, planoetan eremu hura H2-07 zerbitzuetako sistema orokor gisa agertzen da, antolamendu xehatuko eremuaren araudian jasotakoarekin ados dagoena. Hala ere, ekonomia eta finantza bideragarritasun azterlanak ez du berariaz aipatzen sektoreetako arazketa sistema ezta HUA berri baten beharrezana ere. Ondorioz, gai hori zuzendu beharra dago, ekonomia eta finantza bideragarritasun azterlana osatuz eta xehatuz behar bezala.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamendurako plan orokorraren testu bateratu partziala, otsailaren 28ko 84/2012 Foru Aginduz etendako zatiari dagokionez, baldintza honekin:

– Ekonomia eta finantza bideragarritasun azterlana osatu beharko da, xehatuta sistema orokorren zatia integratutako jardunen bideragarritasunaren atalean, zehazki, H2-07 deritzon eremuan proposatzen den HUAri dagokionez, DU.09 sektorizatutako lurzoru urbanizagarriko eremuari lotua eta 196 etxebizitza berri aurreikusten dituen.

Bigarrena. Espedientea zatika izapidetu denez, horiek agiri bateratu eguneratu bakar batean txertatuko dira, eta han proposamenak jasoko dira izapidetuta, ordenatuta eta kasuan kasuko foru aginduen bidez behin betiko onartuta; ondoren, Arabako Foru Aldundiari helaraziko zaio, argitaratu eta eginbidetu dezan.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta beronen aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 16a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO